

DB

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

Lanbide al gara?

Askotan, deitzen diguzue eta Lanbide garela uste duzue. Lanbiderekin lan egiten dugu, hori egia da, baina desberdintasun nagusia da geuk ez dugula laguntza ekonomikorik kudeatzen –langabezia, diru sarrerak bermatzeko errenta, ...-. Gure arduraren nagusia langabetuekiko zera da: Lanbideak eskaintzen dituen baliabideak euren eskura jartzea, hala nola, Orientazio zerbitzua, Enplegu zentrua..., eta beste programa interesgarri batzuekin osatzen dugu eskaintza hori enplegu bilaketa aktiborako (prestakuntza ekintzak, enplegua bilatzeko gaitasunetan trebatzea, etab.).

Orduan, **zertan lagundu ahal dizuegu?**

- **Lan Orientazioa:** zure lana bilatzeko prozesuan laguntzen dizugu, zure lan ibilbideko indarguneak eta ahuleziak identifikatzen, merkatuak zer eskatzen duen kontuan hartuz. Curriculum eta lana bilatzeko beste agiri batzuk hobetzeko eta horiek editatzeko jarraibideak emango dizkizugu.
- **Prestakuntza:** inguruan gehien eskatzen diren profilen antena gara eta prestakuntza eskaintzen dugu, lana bilatzen ari direnei identitate profesionala hartzen edo ezagutzak eguneratzen laguntzeko, lan merkatura hobeto prestatuta itzultzeko. Horrez gain, ahalegin handia egiten dugu IKTen arloan eta enplegurako gaitasun garrantzitsuenetan.
- **Autoenplegua:** enpresa bat sortu nahi duzu? Horretarako dirulaguntzak alde batera utzita, bide horretan lagundu ahal dizugu aholkularitza emanaz. Zure baliabideak eta potentzialtasuna definitzen saiatuko gara, leioaztarra bazara edo enpresa Leioan ireki nahi baduzu.
- **Lan eskaintzak:** heltzen zaizkigunak kudeatzen ditugu eta lanposturako baldintzak gure datu baseko langabetuen informazioarekin kontrastatzen ditugu. Horretarako, garrantzi handikoa da informazio hori eguneratuta izatea eta lanposturako kontaktatu ditugun pertsonak beren beregi adieraztea lanpostuan interesaturik daudela.

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailtza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Lan egiten al du zure enpresak Herri Administrazioen batentzat?

Kasu horretan, STOP. Hau zure interesekoa da

Sektore Publikoan faktura elektronikoa sustatzeko eta fakturen erregistro kontablea sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legea dela-eta, 2015eko **urtarrilaren 15etik aurrera**, tokiko entitateentzat lan egiten duten enpresa guztiek faktura elektronikoak egin beharko dituzte.


Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, besteak beste, doaneko aplikazioa garatu du. Enpresek aplikazio hori deskargatu ahal izango dute www.ef4ktur.com webgunean agiriak formatu elektronikoan egin ahal izateko.

Las facturas electrónicas, como viene siendo habitual, de Enpresari txikiei fakturazio elektronikora egokitzeko zailtasunak ahal beste murrizteko, Leioan erabaki da **5.000 eurotik beherako fakturak salbuestea** (Legeak ahalbidetzen duen maximoa).

Halaber, Industria Ministerioak webgune bat sortu du prozedura berri honen inguruko zalantzak argitzeko eta galdera ohikoenak erantzuteko:

<http://www.facturae.gob.es/paginas/Index.aspx>

Momentuz, Herri Administrazioentzako obligazioa da, baina kontuan hartu ahal duzu, baita ere, faktura elektronikoa enpresen artean eta bezeroekin egin daitekeela.



Oinarri teknologikoko enpresentzako laguntzak

Normalean, Lanbide eta Bizkaiko Foru Aldundiko diru-laguntzei buruzko kontsultak jasotzen ditugu. Dena den, ba al dakizu berrikuntza eta teknologian zentratutako enpresa berriak martxan jartzeko laguntzarik dagoela?

Laguntza horien adibide garbia Spri-ren NET programa da. NET oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresa berrien gaztelaniazko akronimoa da.

Galdera_ Zer da hori?

Erantzuna- Produktu edo prozesu berritzaileen ildotik sortzen diren enpresak, hau da, ohikoa ez den zerbait dakartena.

G_ E-Commerce enpresa bat NET izan liteke?

E- Hasiera baten, EZ. Horrela izateko, edozein teknologi edo komunikazio protokolo berritzailearen bat eduki beharko luke oinarrian.

G_ Zer esan nahi du berritzaile izateak?

E- Munduko beste leku batzuetan egiten denaren guztiz desberdina izatea. Nobedadea ez da Leioan berritzaile izatea, mundu osoan baizik.

G_ Eta existitzen al da hori?

E- Eusko Jaurlaritzak urtero ateratzen du deialdi hau eta aurrekontua beti agortzen da.

Horrek esan nahi du, beste sektore batzuen artean, automatizazio, informatika, metalurgia eta makineria astuneko enpresek ideiak aurkezten dituztela enpresa berriak sortzeko, eta horien bitartez, garatu duten ikerketa edo berrikuntza proiekturen bat merkaturatzea. Horiek start-up izenez ezagunak dira.

G_ Zertarako emango lidakete dirua?

R- I+G gastu, Zientzia eta Teknologiko Euskal Sare barruko entitateekiko lankidetzak, bideragarritasun ikerketa, azterketa industrial edo garapen esperimentalerako.

G_ Zer egin dezaket ideiarenekin bat badaukat?

E_ Harremanetan jarri gurekin. Txostena prestatzeko laguntza eta aholkularitza emango dizugu. Zain gauzkazu.

Enplegurako aplikazioak

Konplexua da enplegua bilatzeko lana, gaur egun, lehen ez bezala, informazioa ez baitoa kanal bakarretik. Duela urte batzuk, lan-eskaintzak bizpahiru komunikabide espezializatutan zeuden, eta gaur egun, ez da horrela. Enpresak gero eta sartuago daude teknologia berrietan eta saihesten dituzte kontratatze bide tradizionalak. **Informazioa kanal askotatik doa, eta ondorioz, app-ak tresna erabilgarri dira orain eskaintzetara heltzeko eta interesatzen zaizkigun horietara gure hautagaitza bidaltzeko, denbora errealean eta eraginkorrago. Horrexegatik, enplegua bilatzeko dauden app-ak errepa-satu nahi zian ditugu, eta gure ustez, interesgarrienak direnak hautatu ditugu.**

	<p>http://www.lanbide.euskadi.eus/lanbide-hasiera Euskal Enplegu Zerbitzuak zure eskura jartzen du webgune berria, enplegu bilaketa hobetzen duten ez-augarri eta funtzio berrieekin, eta horrez gain, lan merkatuarekin eta enplegu-prestakuntzarekin lotutako informazio garrantzitsua eskura dezakegu. Halaber, aplikazioa sakelakoan deskargatuz gero, zuzenean berriztatu ahal izango duzu lan eskaera eta ziurtatu bajan ez zaudela eskaintzarik gal ez dezazun.</p>
	<p>Infojobs Card: Estatuko on line lan-agentziarik garrantzitsuenetarikoa da eta erabiltzaileak lan eskaintza ezberdinak aurkitu eta horietan inskribatu ahal izango dira. Gainera, beren eskaintza gogokoak marka ditzakete eta kontaktuekin partekatu agenda, Facebook edo Twitterreko kontaktuak erabiliz.</p>
	<p>Jobeeper: aplikazio honek zure curriculumaren arabera lan eskaintzak bidaltzen dizkizu, automatikoki, mugikorrera. Alertak sortzea ere ahalbidetzen du. Interesgarriena da, eskaintzak berehala jasotzeaz gain, ez duela erregistrorik eskatzen.</p>
	<p>Indeed: bilaketarik osoenetarikoa eskaintzen du doaneko app honek, lan eskaintzak milaka enpresen webguneetatik eta lan poltsa askotatik hartzen baititu, Estatukoak eta Estatutik kanpokoak. Enplegua bilatzen du 50 herrialde baino gehiagotan: Méxiko, Argentina, Txile... Ahulezia bakarra da ezin dela eskaintzan inskribatu aplikazioaren bidez.</p>
	<p>LinkedIn: 220 milioi kide baino gehiago dituen sare sozial hau profesionalen arteko topagune garrantzitsu bilakatu da. Web orrian egin dezakezun ia guztia egiteko aukera ematen dizun aplikazioa dauka: curriculum igo eta enpresa interesgarriekin harremanetan jarri.</p>

Nola hitz egin zure gabeziez lan-elkarrizketan

Unerik zailenetarikoa lan-elkarrizketetan gure ahulezia edo gabeziez hitz egiteko eskatzen digutenean dator, baina zelan hitz egin horiei buruz lan-elkarrizketan gure buruaren kontra joan gabe?

Lanposturako aproposena zarela frogatu behar duzu une horretan. Baina baliteke elkarrizketatzaileak zera galdetzea: zure ustez, zein dira zure ahulezia nagusiak?


Galdera horren arrazoia izan daiteke zure erreakzioa ikusi nahi izatea egoera deserosoen aurrean. Urduri jartzen hasten baldin bazara eta ez badakizu zer erantzun zure aukeren kontra ez egiteko, ondoren, aholku batzuk doazkizu:

Ondo prestatu elkarrizketa. Enpresaz eta lanpostuaz ondo informatu, eta baldintzak betetzen badituzu, garbi eduki zer nabarmendu nahi duzun zure esperientzia edo gaitasunen artean.

Ez esan gezurrik. Natural jokatu, hautatzailea berehala konturatuko da curriculumaz gezurretan ari bazara edo plantak egiten.

Zure ahuleziak aztertu. Behar bezala prestatu joateko lan-elkarrizketara, aurretik, ondo aztertu behar dituzu zure ahuleziak. Behin identifikatuta, zerrenda bat egin.

Zintzo jokatu, baina ez aipatu lanposturako ezinbestekoak diren gaitasunak. Seguru asko, lanposturako hautagai on izateko gaitasunetan pentsatu duzu soilik. Zure ahulezia edo gabeziez hitz egiteko, kontuan izan identifikatu dituzunen artean, lortu nahi duzu lanpostua zuzenean kaltetuko ez luketenak. Aipa dezakezu, baita ere, zelan lortu zenuen zure gabeziak hobetzea. Ikasteko gaitasuna duzula erakutsiko duzu eta egokitu eta hobera egin ahal duzula edozein egoeratan.



Agenda

Otsaila:

Sustatu zure negozioa errealitate handituko teknikaz erabiliz.

2015/03/06: Bilbo (Bizkaia)

<http://www.euskadinnova.net/eu/enpresa-digitala-eu/agenda/sustatu-zure-negozioa-errealitate-handituko-teknikaz-erabiliz/7672.aspx>

Saltzen Lagunduz – Merkatarientzako edizioa

16/03/2015: Behargintza Leioa





Dirulaguntzak

Orden IET/273/2015, de 13 de febrero, por la que se convoca la concesión de apoyo financiero a la inversión industrial en el marco de la política pública de reindustrialización en el año 2015. [Buletinerako Sarbidea](#)

Orden IET/274/2015, de 13 de febrero, por la que por la que se convoca la concesión de apoyo financiero a la inversión industrial en el marco de la política pública de fomento de la competitividad industrial en el año 2015. [Buletinerako Sarbidea](#)

AGINDUA, 2015eko otsailaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Honen bidez, produktu berriak garatzeko proiektuak eta oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berriak abian jartzeko proiektuak egiteko 2015eko Gaiten laguntza-programa arautu eta horretarako deialdia egiten da. [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2015 FORU DEKRETUA, otsailaren 10eko, abenduaren 9koa, 163/2014 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru Dekretu horren bidez, diru-laguntza batzuetarako oinarri arautzaileak onartzen dira; diru-laguntzok bereziki dira langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzea sustatzeko [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 10/2015 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 15/2014 Foru Dekretua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez onartzen baitira LAFT, Merkataritza eta EETIFIL 2014 finantza-laguntzako planaren oinarri arautzaileak eta lehen deialdia. [Buletinerako Sarbidea](#)

AGINDUA, 2015eko otsailaren 2koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programaren lehen deialdia argitara emateko dena. Programa hori urtarrilaren 20ko 4/2015 Dekretuak arautzen du. [Buletinerako Sarbidea](#)

Elkarrizketa

El Herbolario de Bego

Iparragirre Hiribidea, 56 - bajo (galerias). 48940 Leioa
Tfno.: 944 029 542 / 631 719 096
elherbolariodebego@yahoo.es

Denda ireki duzu duela gutxi Leioan. Zergatik erabaki hori?

Ama erretiratu zenean hartu nuen erabakia. 30 urtez egon zen bera leioaztarren osasuna zaintzen, eta orain, nik egin nahi dut. Horretarako, konfiantza nigan jartzea behar dut, bere garaian, amarekin egin zuten bezala.

Eta martxan jartzeko prozesua, nolakoa izan da?

Ordu asko eman behar zian ditut: hornitzaile eta lan egingo dugun marka desberdinetako ordezkarien aurrean nire burua aurkeztu, baita mediku naturista, nutrizionista, masajista eta abarren aurrean ere, belar-dendari beste egitura bat eman arte, amak zeukanaren desberdina, elikatzeke beste modu baten eskaerara egokitu ahal izateko, adibidez, alergia dutenentzat (glutena, laktosa, arrautza...). Badaude, gainera, produktu naturalagoak erosteko ardura dutenak, gehigarri kimikorik gabekoak, kontserbagarririk gabekoak, eta batez ere, modu ekologikoan landuak.

Familia negozioarekin jarraitzea erronka da. ¿Berrikuntzarik sartuko al duzu?

Berrikuntza da produktu natural gehiago egongo dela, kontsumitzailearen eskaerara egokituz, garai hauetan, elikadura naturalagoa eta ekologikoaren gaineko ardura, dietatik produktu kimikoak eta kontserbagarriak kenduz, hazten ari delako etengabe.

Gainera, azalera handiko merkataritza guneekin alderatuta, gure tratua ere hurbilagoa da, eta dietetika eta nutrizio ezagutzak dauzkagu gure bezeroei arreta profesionala eman ahal izateko.

Gehigarri moduan, gure Leioako bezeroei erosketak doan bidaltzen dizkiegu etxera.

Eta eskudirutan ordainduz gero, deskontua egingo diegu dendako eta enkarguko produktuetan.

Aipatzekoa da, baita ere, hilean behin, gure bezero guztien artean, kosmetika produkturen bat banatuko da, modu naturalean eginak, parabeno, koloragarri, silikona eta olio mineralik gabekoak.

Bukatzeko, webgunea, posta elektronikoa eta publizitate orri desberdinak ditugu, eta edozein kontsultari, atsegin handiz erantzungo diogu.

Eta azkenik, zer iradokizun duzu Leioako merkataritzarako?

Biziberrituko litzateke merkataritza jarduera laguntza gehiago balego. Eta baleude, adibidez, bonuak eman ahal izango genizkieke gure bezeroei, produktu gehiago merkeago erosteko.



